


Astekaria

BARREN
elgoi

Eliza gaztetuz



MitC PROVIRCYOS

VifilH11111

En



SAN FRANTZISKO KALEA 23, u • 74 10 94 • FAX. 74 39 -74

SAN PEDROYaleko jaiak

Uztailak 9 larunbati

Urtanak 8 ostirala

6,30etan, jaien hasera
7etan, Mountain bike
proba.

8,30etan, SHOW

CONEXION orkesta.
Iletan, Berbena SHOW
CONEXION
orkestarekin.

12,30etan, nagusientzako
txerri harrapaketa
leh1aketa.

etan, Meza.

12etan, salda dastaketa.

12,30etan, txikiteoa

3etatik 7etara,
haurrentzako parkea.

6,30etan, haurrentzako
txokolatada.

7etan, sokamuturra haur
eta nagusientzat.

8,30etan, "PASSARELA"
orkesta.

11,30etan, "PACO
FORMOSO" eth BERE
MARIATXIAK "PASSARELA"
orkestarekin.

1etan, zezen mekaniko
1ehiaketa.

Goizeko 5etan,
txokolatada.

Uztailak 11© igandea

11,30etan, ezkondu eta
ezkongabeen arteko
futbito partida.

12,30etan, aizkofariak.

1,30etan, "Os gaiaicos"
folklore taldea eta
"sardinada"

5,30etan, sokamuturra
haur eta nagusientzat.

7etan, QUASAR orkesta.

10etan, QUASAR
orkestarekin berbena.

12etan, jaiiei bukaera
emango dien txapliguak.

LARRAÑAGA autoeskola



Santa Ana II. 74 10 II - ELGOIBAR



*Uda honetan
aprobetxatu oporrak
gida baimena
LARRAÑAGA
autoeskolan
ateratzeko.*

elgoiBARREN
Nafarroa enparantza 2
w 7441 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Eigoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegia.

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu.

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,

Eduarne Bilbao, Rosa Iriondo,

Jose Inazio Sarasua.

KAZETARLAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

MAKETATZAILEAK:

Maite Rementeria,

Edu Sanz.

PUBUZITATEA:

Nekane Etxaniz.

AumiNistkAzt0A:

Jasune Fernandez,

M. Angeles Oduoste.

KOLABORATZAILEAK:

kati Agirreazaldegia, Itziar Agirregomezkorta, Ana Aizpiri, Myriam Aldazabal, Isobel Ansola, Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara Burgaina, Urtzi Etxabe, Asier Etxaniz, Sugar Etxaniz, Felix Etxeberria, Izaro Etxegibel, Enez Ezenarro, Itziar Fernandez, Jose Mari Galdos, Ina Garagorza, Gotzon Garate, Amaia Gorostiza, Alfonso Guillo, Maite Iriondo, Ekaitz Isasi, KOKOE, Enrike Iarrariaga, Imanol Iarrariaga, Horitz Leon, Jesus Mari Mokazaga, Aitor Maya, Iliciki Odriozola, Ixa Sanchez, Jose Inazio Sarasua, Olhana Tarragual, Alain Ulazia, Olga Unzilla, Igor Vazquez, Ana Vila, Miryam Villasante, Alaitz Vives, Aitor Zabaleta, Yulen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larranaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Ofiati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoiBARREnek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierozitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ZENBAT BURU



Ulertzen ez gaituztenean Ulertuko gaituzte

Aspaldiko esaldia dugu hau. Bere esanahia? Lehenengo hitza, beti euskaraz, bigarrena eta hirugarrena berdin, beti euskaraz.

Honela ulertuko gaituzte. Esaldi honen berri Rikardo Arregik (1942-1969) 60ko hamarkadan ezagutarazi zigun. Esanahiaz eta herria alfabetatu beharraz, bera izan genuen gerra ondoren, hitz egin zigun lehena. Ordura arte, folklore apur bat eta ezer gutxi gehiago zegoen hemen. Horrek ekarri zuen Ikastolen sortze eta euskai alfabetatze behararen kontzientzia. Kontu izan, 27 urte bete gabe galdu genuela Rikardo, Mendaron gertatutako istripu batean, eta bere azken hiru urteetan, amaigabe lan eta bide jarri zizkigula Bera eta bere arreba Begoña izan ziren garai hartako eta gaurko oinarriak jarri zituztenak. Rikardo, bera izan zen bide urratzaile, gidari eta eragile. Harrez gero, eman da urratsik.

Nik, garai hartakoari heldu nahi diot. Garai hartan, ez zen batere erraza, euskara ikastea eta alfabetatzea. Franeoren garai gogorra zen eta alfabetatzeko ez zegoen ez metodorik ez irakaslerik. Hala ere, baziren nahikoa ondo moldatu zirenak, bai bertakoak eta baita zenbait etorkin ere.


Gertatu dena da, eta, penagarria ere bai, hauetako zenbaiti, garai hartan ikasitakoa, erdi galdu edo dorpetu egin zaiela. Okerrago oraindik, hauetako zenbait, euskalduna eta euskaltzalearekin ezkondu ondoren gertatua. Ez omen daukate noekin hitz egin euskaraz. Eta, etxean, euskalduna eta euskaltzalea eukiz. Pena izateaz gain, guk ezin ditugu ulertu. Garai hartan ikasiari eta orain ikasiari ere ez bazaio laguntzen, euskararen eskailera-mekanikoan gelditu egoterik ba ote dago? Norbera mugitu ez eta euskal kultura geratzen bada, kultura haundi horiek irentsiko dute berehala.

Garai hartatik, gauza batean bederen, nabarmenki aurreratu dugu. Telefonoz non-nahira dei dezakezu euskaraz nahiz eta, batzuetan, guk nahi baino gehiagotan,... por favor en... entzun behar izan.

Beste batzuetan, hau ere guk nahi baino gehiagotan, euskaldun eta euskaltzale bezala agertzen denari telefonoz deitu ondoren, sininti! luze batekin erantzungo du, guztion lotsarako. Hau bai dela txixa ontzia eskuan euki eta lurrera txixa egitea bezalakoa.

Felix Etxeberria

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



Iñaki Fernandez:

"Osasun pribatua hobe denaren iritzia aldatzen ari da"

39 urte dituen elgoibartar hau 1984an Eusko jaurlaritzako Lehendakaritza Sailean hasi zen lanean, erlazio laboraletako jefe bezala. 1989an Gipuzkoako lan arduraduna izendatu zuten. Urte Verdi egin zuen aipatu postuan, Iñaki Azkunak beste eginkizun bat eskaini zion

arte: Osakidetzako Pertsonalaren Gestio Zuzendari izatea, alegia. Orduetik gaur arte horretan dihardu. Hogeitabi mila langile dago Osakidetzan, "eta ez da lan erraza, baina gauza asko egin ditugu, nahiz eta jendeak oposizioetako iruzurra baino ezagutzen ez duela dirudien".

- Zer moduzko Osasun Zerbitzua daukagu Euskal Herrian?

Osakidetzak oso ondo funtzionatzen duela esan dezaket, hala da eta. Estatu mailan hobekien funtzionatzen duen Osasun erakundea garela esango nuke, eta Europa mailan, lehenengo seiren artean koka gaitezke.

- Halere, badirudi osasun pribatuaz gehiago fidatzen garela.

- Beti uste izan dugu, diruz gehiago ordaintzen duguna hobe dela, balore gehiago ematen diogu. Baina osasun mailan iritzi hori aldatzen ari da. Osasun publikoan makinaria aurreratua eta onena daukagu eta profesional asko, kontsulta pribatua izan arren, publikoan ere aritzen dira. Eta jendea ohartzen da horretaz.

- Zer gertatzen da "listas de espera" famatuekin?

- Operazio bat egin behar duenak denbora itxaron behar izaten du eskaera asko baitaude, horri deitzen zaio "lista de espera". Dena dela premia duten pertsonak ez dira inoiz zerrenda horretan sartzen, haiek lehentasuna dute. Logikoki enpresa guztiek behar dute epe minimo bat planifikazioa



"Oposizioetako gaia epailearen esku dago. Printzipioz, lau pertsona kartzelan daude".

egiteko, hori da "lista de espera teknika" deituko genukeena. Osakidetzan, azken zerrenda hau hiru bat hilabetekoa da; Estatu mailan sei hilabeteko da.

- Gobernuaren arabera aldatzen al da funtzionamendua?

- Ez luke hala izan behar. Eragina dauka alderdi politiko bakoitzak osasunerako eskaintzen duen aurrekontuaren arabera. Guk darainatzagun lau urte hauetan gauzak nahiko ondo joan dira. Aurten adi-

bidez, 103 mila milioiko aurrekontua daukagu pertsonal gastuetarako.

- Zenbat kexa jasotzen dituzue urtean?

Normalean tratuari buruzkoak izaten dira jaso-takoak, osasun zerbitzuari dagokionean ez gehiegi. Ingresatuak egon diren guztiei txerak inkestaxo bat bidaltzen zaie bertan jar dezaten euren iritzia. Normalean emaitza onak jasotzen ditugu baina ziur akatsak egiten ditugula.

- Aurrera begira, zertan

ari zarete lanean?

- Arazo handiena aurrekontua da. Helburua, gehiago produzitzea da prezio hobean eta kalitate altuago batez. Hasi berri dugu "Osasuna zainduz" plana, helburu hori betetzera doana. Gaur egun esan daiteke produkzioa aurrekontua baino gehiago hazten dela, horregatik pezetek "txispak" atera behar zaizkie, hau da, ahalik eta efizientzia handiena lortu behar da inbertitzen den diruaren arabera.

- Zer gertatu da oposizioekin?

- Badirudi lau urtetan ez dugula beste ezer egin. Ez nuke gai honetaz gehiegi hitzegitea nahiko, badirudi politika eta administrazioa korrupzioa eta entxufismoa dela eta ni ez nago ados irudi horrekin. Momentu hartan oposizio batzuk egin ziren, lanpostu asko zeuden jokuan eta opositorak ere asko ziren, baldintza ezin hobeak ziren nolabaiteko txapuzak egiteko. Lau pertsona kartzelan daude eta horiek alderdi konkretu batean militatzen zuten eta postu konkretu batean lan egiten. Epaileak ezer adierazi arte guk ez dugu ezer esango. Dena den, gaia hor dago eta lau pertsona kartzelan.

ASEERIZA


FER.1.52XLTSIM

San Juan egunez baserritarrek ere badute ohitura berezirik. Kanean ezezik, baserrietan ere izaten da surik, urtean zehar lurra ahalik eta fruiturik onenak eman ditzan. Lora sorta bat egiten da, larrosa, krambelin eta bestelako lorez ezezik, baita tipula, baratxuri, artoa eta antzeko produktuez ere. Lora sorta honek, bedeinkatu eta gero, udaran egon daitezkeen trumoi eta txingor jautzien aurrean babestuko

du baserriko produktua.

Eta esaeren haritik jarraituz, bada mito bat, zeinaren arabera, San Juan gaueko suek trumoi eta euriak ekartzen dituzte]a esaten baituen. Aurten bete betean eman da, behintzat, ostiralean hasi eta igandera bitartean zerua estalia eta lurra bustibustia egon baita.

Halere, euri artean, behi batek txahal bat erditu zuen ekaineko San Juan suen osteko ferian.



Jose Egidazu

URKIOLA HAUNDIKOA

- **Zer saltzen duzu?** - Galzterdixak, abarka sokak... Sokak neuk itxeixut eta honek galtzok andra batzuk eitxen die.

- **Non ikasi zenuen haria egiten?** Gerra aurretik, etxian. Soinua ere jotzen ikastia nahi naban baina gerria etorri zan ta geratu nitzan ez galtza ta ez soinu.

- **Inork ez dizu erakutsi?**

- Hori norberak ikasten dau eginaz.

- **Makinaz?**- Ez, eskuz, txabiliakin. Dana garbitxu bihar da ondo jaboiaikin eta gero makiliaikin, izpitxu eta kardau itxen da. Gero harixa ein, rolluan batu eta galtzia itxen dabanari eruan.

- **Saltzen al dira?**- Bai, kalleko jendiak erosten ditxu gainera. Lehenguan Sarasuak erosi zian Donostiako batentzat 16 pare, itxuria Frantziarako dia.

- **Hobeak al dira artilezko hauek?**- Bueno, bueno!

- **Takarrak dira, ordea.**- Nik eitxen dot galtzerdi mehe mehia jantzi azpitan ta muy bien, demasioo bien.

- **Bi kolore dauzkazu.**- Hori ardixan ilia da, hemen ez dao tinterikart.

- **Ze prezio dute?** - Txikixak 2.500 eta haundixak 3.000.

- **Eskuak ez al dia zatartzen?** - Ez, findu, ziharo findu.



Azken bizpahiru urteetan hainbat zurrumuru entzun da behi edo txekor okelaren inguruan, batipat, ciembuterol deritzon produktua erabiltzeagatik iritsi zaizkigun intoxikazio kasuak eta berak sortzen dituen ondorioak:

- Okelari buruzko zalantzak (kalitate gutxi)
- Identifikazio falta (nongoa den ez dakigu)
- Kontsumoa murrizten da

Gure esplotazio edo basorri neurria txikia da eta orain arte bertako produktuak saltzeko arazo gehiegirik izan ez dugunez, ez daukagu sa[keta estruktura edo komertzio egokirik.

Gainera, gure produkzioa ez da haundia, jaten dugunetik bat bakarrik egiten dugu eta kanpoko txekorra edo behia asko sartzen zaigu (hirutik bi). Hala ere, bertako okela gehiengoa kalitate onekoa da eta hori ondo dakite hemengo harakinek, okela horrekin lan egiten dutenok, era horretan bertakoa %10/15 gehiago ordaintzeko prest daude eta horrek zerbait esan nahi du bertako okelaren kalitatearen defentsan.

Traba hauetatik defenditu asmoz sortu da Eusko Jauriaritzak ateratako dekretuan dagoen "Elikagai Kalitatezko Euskal Labela" eta bere K-KALITATEA zigilua.

KALITATEA zigilua Eusko Labefaren identifikazio sinboloa da. Zigilu honek, berau daramaten eikagaiei eskatzen zaizkien kalitate baldintzak botetzen dituztela ziurtatzen du. Jatorriz edo lanketaz Euskal Herriko Autonomi Elkarteko elikagai guztiek jaso dezakete zigilua.

KALITATEA zigiru identifikatzailea erabiltzeko aukera, eskatzen duten Ekoizle Elkarteei ematen zaio. Eikarte hauek baldintza jakin batzuek bete behar dituzte, elikagaien kalitate kudeaketa garatzeko gaitasuna eta Araudian datozen arauen onarpena eta betetzea ziurtatuz.


Elikagai kalitatezko Eusko labelak ondokook ditu helburu:

- . Kontsumitzaileei zerbitzu bat eskaintzea, elikagaien jatorria ziurtasun osoz identifika dezan.
- . Kontsumitzaileari kalitate maila zorrotza eskaintzea identifikatutako elikagaiekin.
- . Iruzurretik babestoa, bai jatorriari bai eta onetsitako elikagaien kalitateari dagokionean, enpresa espezializatuek egindako kontrol eta azterketa prozesu jarraituaren bidez.
- . Ekorzieren lana defendatzea, kontsumitzaileak ekoizkina eta eskainitako kalitatea zalantzarik gabe ikusi ahal izango baitu.

Ekoizle eta teknikarien lankidetzaz kalitate Araudi berezi bat prestatu da elikagai bakoitzarentzat. Araudi hau bete eta errespetatu beharko du, labela jasotzen duen elikagai orok.

Bide honetatik prestatu da Euskal Okelaren araudia, bertan parte hartu dutelarik hainbat ekorzile elkartek, hiltegiak, harakinek, komertzialek eta Kontseilu arauemalek.

Fermin Jauregi, LABELEKO TEKNIKARIA



Agustin Beretxinaga, 35 urte, Barrenengua (Elgeta)

Ondo, kontrol bat eraman ezkerro, nik uste orain arte ez dala egon bate kontrolik eta jartzen due hemengo haragia dala ta gero kanpoko saltzen due.


Jabier Muguruza, 47 urte, Etxeberrizabal (S. Lorentzo)

Komeni da ta ona da Jende askok ez daki zer erosten dun eta merkeago pagatu arren kalidade eskasagoko okela erosten du, ormonaz beteta.



Jose Mari Egaña, 47 urte, Etxezabal adotriko

Aittu deu zeoze. zaila izango da gehienbat baserritarrak ez geralako biltzen. Idea ona da, danok dakigu hemengo jeneroa ona dala eta jendeari kontzientzia jarri behar zaio.




Jesus Elordi, 38 urte, Ospas (Mendaro)

Preparatzen gauza asko dabiz, oin preparatzera orduko ze komenigarri dan, hortxe dao gorabeheria. Ondo erutia zaila da, interesak badakizu zer dian.



Totnas Urgoitia, 44 urte, Ziarda Txiki (S. Migel)

Ondo etorriko zan bertako okenak label bat eukitzia. Gutxienez jakingo genduan ze jaten doun. Oin kanpoko saltzen da gehixen eta ez dakigu zer dakan ere!



Aspaldiko garai batean ermitak Azkuatar San Vicente izena zuen. Baina, dirudienez, kolera epidemia bat hedatu zen eta auzotarrek, gaisotasuna uxatu nahiean, San Roke santuari egin zioten erregu laguntza eske. Elgoibarko herria gaitz hartatik aske geratu zen. Santuaren omenez, San Roke izena eman zitzaion aipatu ermitari.

Kaletik gertuen kokatua zuten zentral elektrikoak dagoen auzoa dugu San apurtzen du, zoritxarrez. Roke. Azkeneko etxebizitza- Halere, ez da arraroa egutzak, Erretxindi baserriaren raldiak gonbidatzen duen ondo-ondoan daude. Bera- egun hoietan, San Rokera seta aldera pasiarra bat hurbiltzen diren makina bat ematera edota Karakate herritar aurkitzea. Ermitaren puntara bueltatxo luzeago ondoko plazatxoan, kabalibat ematera joan nahi dute- tea jarri, margoak hartu eta nak halabeharrez hartu be- kuadroak pintatzen ibiltzen har du San Rokerako bidea. denik ere badago.


Auzo ezaguna dugu, aipatu Abuztuak 14an hasi ta berri dugun gertutasuna 17ra bitartean jaiak ospadela eta. Aurrerantzean, tzen dituzte. Ezaguna da gainera, are ezagunagoa bertako sokamuturra eta bihurtuko da, Mintxeta dela aurten, jakin dugunez, bakieta. laojana ere antolatzekotan

Parajeak duen edertasuna- dira, bezpera eguneko ohina, auzoaren erdian eraiki tura bilaka dadin.



San Roke auzoa.

- **BASERRIAK:** Agarre, Agarre nagusi, Agarre txiki, Andikano, Arregi Torre, Azkue, Bekoetxe, Beraseta, Errekarte Nagusi, Errekarte Txiki, Erretxindi, Goenaga, Goenaga etxoberri, Ibartola, Ibartxiki, Kurutze, Lapramendi, Mintxeta, Panparron, San Roke, Sanson Etxeberri, Sansongua, Sansongua bigarrena, Barrena, Errotaberri eta Kurutze Txiki.
- **JAIK:** San Rokeak, abuztuak 16. San Vicente, urtarrilak 22.



XUZOETAKO ALKATEEKIN BERBETAN

Patxi Elustondo:

"Sakristixia aprobetxatuz ingo dou lokal soziala"

- Zer moduz alkatetzan?

- Hiru bat urte daruazt eta nahikuak, hurrengorako lagatzeko asmuakin.

Kaletik gertuen dagoen auzoa da. Ze abantaila ditu horrek eta ze desabantaila?

- Kaletik gertu egoterakuan badaude gauza batzuek ez dozkuenak ipintzen, por ejemplo, guk ez dou domekatan meza-

rik eukitzen, jaixetan bakkarik. Itxuria apaiz gutxi dao herrixan eta ezin dia auzo danetara ailegau eta zelan guk kalera bajatzeko erreza daukagun. Bentajia ere horixe da ba, hain gertu egoterakuan ez dogula, beste batzuek bezela, autobusik eta bihar umiak eta eskolara juteko.

Zuek badaukazue lokal bat baina ez soziedaderik, zergatik hori?

Bueno, oin dakagu asmu lokal hori konpondu eta elizako sakristixia ere aprobetxatuz holako lokal sozial bat eitzeko. Diru kontua ematen dau

bastante arreglauta daua, aber laster hasten geran zeozetan.

- Auzoaren erdi-erdian zentral elektrikoak.

- Bai, horretxek estropeatzen dau paisajia. Kanpan trankil trankil zaudela ta batera begiratuta mendixa besterik ikusten dozun bezela, bestera begiratuta zentrala ikustiak dana kentzendio.

- Aukeran, kalera ala mendi puntara artzai?

- Nauan lekuan gustorra nao baina bat hartu bihako banaban nahixao kalera jutia bizitzera, bestia gogorra da eta.

- Ba al dago kontu bitxi-

rik?

- Esaten dabe lehen egon zala apaiz bat lepria zakalako hil zana. Itxuria elizian azpizan enterrau zaben, han badao kurutze bat eta ondiokan ohitxuria dakagu jaixetan eliziarri bueltia emateko eta erro-saixua erreztzeko.

- Zer dute San Rokeko festek?

- Fetxarrik ederrenak ez dia, epokarik eskasena da, buelta guztian daude jaixak eta oportetara ere jende asko juten da. Baina ambientia nahikua egoten da, sokamuturra, erro-merixia... merezi dau jutiak.

da behixetan gaur egun''



Zein izaten da zuen zeregin nagusia?

Lehen etxe bakoitzian 6 edo 7 behi egoten zan eta idisko bat behiak hartzeko. Baina ez zan rentabilia urtetzen. Oin, nahixoa izaten dabe eukitzia leku batian idisko oso ezaguna eta deszendentzia oso ona ekartzen dabena eta handik ekartzia hazi konjelaua. Merkia da eta gehixen sartzen dou hazixa.

Eta behin sartuta nahikoa izaten al da?

Ehunetik 85 geratzen badia haurdun, 65 txahal jaiotzen dia, bestiak abortau itxen dabe.

- Ez zaie, beraz, era naturalez uzten.

- Ez, gustua kentzen jakue. Baina gaur egunian behiak hartu bihar dozuz produkzio bide bezela, makinak dia. Behi hori makina bat da eta txahal bat eukitzen dabanian ez dozu maitxe, hori ere makina bat da edo mataderora dixe.

- Zerk ematen du arazo gehien?

- Errepiak, hor inhezivak eta askotan sortzen dia. Titi puntia esnia ateratzeko dauan bezela, gaisotasunak eta inhezivak ere hortik sartzen dia. Martxo inguruan berakuak izaten dia eta katarruak. Gure gripiakin batera ganaduak beste birus bat eukitzen dau.

- Erditzerakoan zein animaliak izaten du zail-

tasun gehien?

- Behi bati kriston idiskua emon diotenian eta txahala ez danian behiaren barruan sartzen, errebetau itxen da eta arazuak sortzen dia. Trabauta gelditzen bada zatika atera bihodu edo zesarea bat ein. Zatika ateratzerakuan, txalgintzak dakan gauzarik politxena gauzarik zatarrena bihurtzen da.

Anekdotak bat?

- Behin Urbiako baserritxar batek deitxu zoztan esaten bazakala behi batek gauza raro bat ipurditxik behera zintzilik. Jun ginan ikustera ta han zakan umetokixa sei hilabetian zintzilik ziharo simelduta. Onena operatzia izango zela esan

naia nagusia biologoa da eta hark piztu zuen Pedro Erkiagarengan animaliekiko zaletasuna. Zaragozara joan zen albaitaritza ikastera, baina karrera hasi baino lehen, Bergarako beste albaitari batekin hasia zen praktikak egiten. Ikasketak amaitu eta berehala hasi zen lanean. Gaur egun, Elgoibar eta inguruetako baserrietan mugitzen da eibartar hau. Bizi Elgoibarren bizi da, baina ia horrenbeste denbora ematen du kotxean edo, gutxienez, telefonoa eskuan, bere lan tresna ia baliotsuena.

gendun baina baserritxarrrak ezetz, barrura sartzeko berriro be poltsia, bizirik ateratzen bazan ondo ta bestela sartuko zebela zulu. In genduan ba berak esandakua. Handik ixa urtebetera bueltau ginan ta han esaten digu baserritxarrrak, "gogoratzen al dozue behixa zela ekarri genduan umetoki guztitxa jata zintzilik ta ustelduta? Ikusten dozue behi hori? eta beste txahal hori? ba beria da". Osatu in zan barruan zakala, ernerik geratu zan ta txahala in eban.

- Animalia izatekotan?

- Behixa behintzat ez. Libre bizi dan edozein txori, arranua edo. Txakurra ere bai jabiaren arabera.

TOMATEA

■ JATORRIA: Peru eta Ekuador. XVIII. erarte landare apaingarri bezela erabiltzen zen.

■ FAMILIA: *Solanaceae*.

■ IZEN ZIENTIFIKOA: *Lycopersicon esculentum mfel*


■ KLIMA: Epela eta zenbat eta argi gehiago, hobe.

■ ZOLUA: Ongi drainaturiko lur solte

eta sakonak komeni zaizkio.

■ EREINTZA: Martxo-apirila aldera landatzen da haztegia gero transplantea egiterakoan 0,80-1,20 m-ko tartea uzten da ildoen artean. landareen arteko tartea 25-50 mkoa izatea komeni da.

■ LABORANTZA ELKARKIDEAK: Aza, apioa, azenarioa, azaburua,...



Olga Vela

Erizaina



• **Txikitan enfermeria izatia nahi al zenuen?)** Ez, medikua izatia nahi naban.

• **Orduan, zergatik enfermera?**

i COU bukatu ondoren ikasteko gogo haundirik ez nakalako.

• **Betirako enfermera?**

1 Ez nuke nahiko. Medikua izatera ailegatzia nahi dot.

• **Emakumezkoen lanbidea al da?** **1** Piskat bai, emakumiak sentsibilitate gehixao dauka, nahiz eta honekin mutilak ados ez egon.

• **Egixa al da enfermera guztiak rubixak eta ederrak diala?**

1 Ez, gehixenak morenak eta ederrak dia. Mendaron ez dao rubixarik.

• **Gaixoren batek bota al dizu inoiz piroporik?**

Bai, gaixoeak, medikuek eta zeladoreek. Horretan anestesista argentinarrak dia txarrenak, "muriequita" izugarri gustatzen jakue.

• **Mundialeko zein futbolistari emango zenioke masaje on bat iztarretan?** **1** Ez dot futbolistarik ezagutzen. Julen Guerrero bera ere ez dakit nolakoa dan.

• **Zergatik dira hain tristeak ospitalak?** **1** Danetik dao. Gure planta (Toko-ginekologia) ez da batere tristia: ume asko dao, jaixo-berrixak,... Medizinan sartzen bazera, berriz, jende zaharra, gaixuak...

• **Zer egiten dozu gaixotzen zeranian?**

Egixa esan bihar badizut umetatik hona ez naiz sekula gaixotu.

• **Botikak errezegi hartzen al ditugu?,** Batzuk errezegi hartzen dabe, beste batzuk, berriz, ez dabe ikusterik ere nahi.

• **Zenbat aldiz haserretzen zera gaixoeekin?** **1** Eurak aurrean daudela ez naiz haserretzen, pazientzia haundixa daukat.

• **Zeintzuk dira gaisorik finenak eta txarrenak?** **1** Txarrenak emakumeak: depresioak, negarrak... Onenak, berriz, umeak.

• **Alde ala kontra: Eutanasia:** printzipioz alde. **Abortoa:** alde kasurik gehienetan. **Drogen legalizazioa:** kontra.

• **Botikak:** **1** Neurrixan hartuz gero alde.

• **Udaran oporrik bai?** Bai.

• **Nora zoaz?** Thaiandiara gustora joango nintzateke.

• **Zeinekin?** Prest dauanakin.

IMANOL LARRAÑAGA

ESAMINAK

DOINUA:

Arratsaldean lehendabizi

Examinetan jende guztia

gaur bihar edo ta etzi

eta gauza bat oraintxe bertan

nik nahi nuke ihardetsi

nere ustefan rnaisuek dena

gaizki digute irakatsi

urte guztiko lana egun baten

ezin bait degu ikasi (BIS)

Dena gainditzen duten horier

egon ohi dira pozikan

eta besteak aprobaturten

saia beharko dira udan

hoiei guztiei nik gauztxo bat

nahi nieke orain esan

azterketa horiek ondo prestatu

ez galdu **esperantzarikan** (BIS)



ALBERTO GONZALEZ



JUANA URRESTI

JANARIDENDA

.._7(aidalezo gazahlz,
zalozyureyana, hallarenai

San Bartolome 12 - Tel. 74 12 26 - ELGOIBAR

ARMUETA

Baserriko haragietan berezia



Harategi Urdaitegia

San Bartolome, 16.75- 74 06 40

jai eta ikuskizun areto bat eraikitzea ukatu da

Olaso industrialdean jai eta ikuskizun areto bat irekitzeko baimena ukatu da. Eman diren arrazoien artean, besteak beste, aparkaleku falta egotea da bat. Bestalde, badirudi, aipatu aretoak izango lukeen ordutegia ez zela inondik inora bat etorriko inguruan kokatzen diren gainontzeko industriekin. Beraz, eta gainontzeko industriekin bateragarria ez denez, ez du Araudia betetzen.

Diru ordainketak

1 Morkaiko mendizale elkarteari 400.000 ptako dirulaguntza Euskadiko Eskalada Txapelketa eta Dantza eskalada ikuskizunak antolatzeagatik.

1 Galiza Etxeari 200.000 pta "Letras galegas" jaiak antolatzeagatik.

1 200.000 pta Haritz Euskal Dantzari Taldeari Belgikara egingo duten bidaiak kulturala dela eta.

1 KOKOE komiki taldeari 300.000 pta San Bartolome jaietan "Gin-Kana" antolatzeko.

1 Trinitate jaiek zuten 3.068.000 ptako aurrekontua ere onartu da.

1 Herriko Antzokian ipini den moketaren kostua 778.507 ptakoa izan da.


1 Herriko Antzokiko soinu eta argi instalakuntza berriak 10.802.257 ptako kostua izan du.

Biztanle zerrendak

1994. urteari-dagokion biztanlego zerrendetan beharrezko diren zuzenketak egiteko azken eguna hilaren 11 izango da. Zerrendak Udaletxeko bulegoetan egongo dira eskuragai.

Telekomunikazio zentru bat eraikiko da Karakaten

Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia Sailak eskatuta, Karakate mendian Telekomunikazio zentru berri bat eraikiko da. Dirudenez, orain arte, Euskal Telebistak, lurretatik Oiz mendira bidaltzen ditu uhinak eta handik emititzen da Euskal Herri osora. Baina, Oiz mendian akatsen bat gertatuz gero, ezinezkoa suertatzen da ezer emititzea. Arazo hau ekidin asmoz eraiki nahi da Telekomunikazio zentru bat Karakaten, hartara, lurretatik Oiz mendira bidaltzeaz gain, Karakatera ere bidaliko luke eta hauetan ezarritako dorreetatik emitituko. Honela, zailagoa izango da biek huts egitea.



Zentrua, 290 m²ko luzera izango duen txalet itxurako eraikuntza laukiluzebatez eta komunikazio dorre batez osatua egongo da, azken honek 70 bat metroko altuera izanik, gutxi gora behera. Orain Karakate puntan ezagutzen dugun dorrea eta bi txabolak desagertu egingo dira eraikuntza berriarekin.

Proiektuaren berri izan bezain pronto, Elgoibarko Udalak ikerketa bat egiteko eskatu zion Foru Aldundiko Ingurugiro Zuzendaritza Orokorrari, obrek Karakate inguruan izan dezaketen eragina ezagutzeko. Aipatu ikerketa ikusi eta gero, Udalak oniritzia eman du nahiz eta zenbait aldaketa egitea proposatu duen, ahalik eta ondorio

txikienak izan ditzan aipatu parajeen. Esaterako, pagadiak dauden ingurunea izanik, gune konkretu bat zehaztuko da bertan bota daitezen zaborrak, zuhaitzentzat inolako arriskurik egon ez dadin. Obrak martxan egongo diren garaian ingurugiroan nolabaiteko eragina izango dituen hainbat faktore emango da, hala nola, makinak sorturiko zarata zein lurren mugimenduen ondorioz aterako den hautsa. Lurrak mugitu behariko dira zentrua ahalik eta zolu egonkorrean finkatu dadin, eta eraikuntza ahalik eta sustraituen eta sendoen gera dadin.

Obrak uztaila aldera hastea nahi dira eta bostpasei hilabetez luzatuko dira.

Sallobenteko zubia

□ Sallobenteko plazaren albo batean, errekaostari agur eginaz, aurkitzen da zubi hau. Gaur egun jende gutxi erabiltzen du pasabide hau, 6este zenbait tokitan bezela, hemen ere errepideak eta hormigoizko pistek mendiko oinezko bideziorrak sasi eta larrez bete baitituzte.

■ Garai batean Artasoro, Parapan, Juaristi Txiki eta Gurutzetarainoko baserritarrak zubitxo honetatik igarotzen ziren Sallobenteko plazara, Bertan zituzten beharrezko zerbitzuak: eskola, eliza, jolastokia, taberna...

Ahozko testimonio baten arabera, Santiagora joaten ziren erromesak, Urola bailaratik barna kostaldeko bidea hartzeko, zubitxo eta bailara honetatik igarotzen ziren Sailabente aterpelekutzat hartuz.

□ Erromes hauetaz gain, baziren beste zenbait ibiltari ere: "Demonioa", "Pelona", "Txitxilibakio", "Morenito"... Guzti hauek sasoi bateko pertsonaia arruntak ziren. Bizitza honetako erromesak ote ziren? Zubitxo hau makina bat aidiz erabiliko zuten, agian, euren eskale

lana txukun bete ahal izateko.

Pilareak, alboetako harmorak eta arkuaren dobelak inguruko harlongaitzez eginak daude. Pilareak eta errekaostoa bideratzeko harmorak uharriz eraikiak daude eta dobelek forma zapala dute, arkuaren harri hauek euren artean ahalik eta gehien egokituak egoteko, Harrien arteko kareorea kareaz eta buztinez osatua dago.


□ Bitxia da, eta ondo eginiko lanaren adierazle dugu, zubitxoaren ondoan eta errekaostaren eskubi aldean mendiko urak bideratzeko dagoen isurbidea. Lauki zuzen forma du eta goiko eta beheko alboak harlauza banaz eginak.

III Errekastoaren zazpi metro inguruko tarte gaintzeko uharrizko piloretan eutsitako erdi puntuko arku dotorea eta bi metro erdi inguruko kainoi ganga erdia daude eraikiak. Zubia 58 zm zabalagoa denez, argi dago noizbait gurdiak pasa ahal izateko arkuaren pareko hormigoizko zatia erantsitakoa dela. Alde hortatik ez da arku ikusten.

PELLO ARRIETA



Nicolas Larreategi (1889-1975)



0 Azkoitian jaio zen 1889. urteko apirilaren 15ean.

Elgoibarren ezkondu zen eta bertan ezarri zuen negozioa.

Abarketak egiten zituen eskuz, ez bakarrik Elgoibarren saltzeko, inguruko herri guztietan saltzeko ere bai. Adibide gisa aipatu, Donostiako saskibaloi jokalaria bati, Segundo Azpiazuri, neurrira egiten zizkiola abarketak.

Ohizkoa zen, Jose Murua-mendiarazekin batera, Plaza Txikian abarketak josten ikustea.

Gerra denboran, Frantziara joan zen, eta han abarkak egiten jarraitu zuen. Bertako jende askori erakutsi zion abarketak egiten. Gerra ostean Elgoibarrera etorri zen bueltan.

Gerra ostean, abarketak egiteko materiale faltan, "Fundiciones MugicaTh hasi zen lanean.

Jubilatzean beniro ekin zion bere aintzinako lanbideari, eta horretan jarraitu zuen ia hil zen arte.

1975. ko urriaren 30ean hil zen.

E41., daotea
lute.:51(5.-ept9
P~eia.4
74vteez'
?yoVeiocl
≡aftdoe:4'

Murumendiaraz
 ELGOIBAR

GOZOTECIZZ

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

magu's

ILEAPAINDEGIA
 EDERGINTZA

San Roke 6 behea tel. 74 34 91

UDA
BERRI

ELGOIBAR

MOTZAK

Lau domina Ibai gimnasioko ikasleentzat

Ibai gimnasioko alebin eta infatil talde batek Usurbilen jokaturako "Josetxo Etxaniz Memoriala" VIII. Judo Txapelketan parte hartu zuen, emaitza ezin hobekak lortuz. Lau domina lortu zituzten: Zuhaitz Azpiazu zilarrezkoa 36 kilotik beherako mailan, Egoitz Morak eta Josu Idiakezek brontzezkoa 46 kilotik gorakoan eta Juan Jose Martinek brontzezkoa 46 kiloz azpiko mailan. Hurrengo topaketa, hilaren 17an Ermuan jokaturako den txapelketa izango da.

Ikas-Blai 5, geratu da Espainiako txapelketan

Ikas-blai eskubaloiko ekipoa osatzen duten 8. mailako ikasle hauek, eskolarteko jokuetan herriko eta Euskadiko txapeldun izan ondoren, Espainiako txapelketa jokatu dute joan berri den astean. Ekainaren 23an Eneko Kortabarria eta Jose Pefiaranda entrenatzaileekin batera Murciarantz abiatu ziren. Lehen partidua Ceutako nesken aurka jokatu zuten eta 17 eta 3ko emaitzaz irabazi, bigarren topaketa ere 9 puntuz irabazi zuten eta hirugarren partidua, ordea, galdu egin zuten iazko txapeldunak diren Valenciako aurka. Talde bakoitzetik lehen ekipoa baino sailkatzen ez denez, ikas-blaikoek ezin izan dute final laurdenetara pasa. Ekainaren 28an Cantabriaren aurka jokaturako partiduan 13 eta 6 irabazi zuten, txapelketako 5. postua lortuz.



Manolo Esnaola:

"Bi urte hauetan zorra kentzia nahi dot"


1 Presidente berria aukeratu zaituzte. - Bai, lehenengo urtia da hau. Astearteko asanbleian presentatu naban programia eta alde botatu zaben. Lehenago egon nintzan presidente orde baina gero dimitidu ein naba.n. Entrenadore moduan ere egon naiz. Bi urte egongo naiz, baina klubian hamazortzi urte daramatzat. Futboletik erretiratu nintzan klubian sartu nintzan lanera.

Zein da presidentearen lana?
- Bueno, nik bakarrik ez dot lan eitzen. Presidentiak direktibian laguntza daka. 17-18 lagunek osatzen dabe eta aurten jende gazte mordua dao. Presidentiak kluba dirijidu bihar du, eta imajina ipiñi.

1 Zein egoeratan dago kluba?
- Deportiboki ondo dabil baina ekonomikamente, datuak ez dia onak. Bost edo sei milloiko defizita daukagu, baina bi urtetan kendu ein bihar da hori. Nire asmua hori da. Jugadoriekin, kluba nola dauan ikusitxa, akordio batera heldu gera. Fitxia erdiraino bajau jakue, eta plantillia berdina izango da.

1 Zer dela eta sortu da zor hori? - Igez jugadorien soldatak haunditxuta zauden, eta sarrerak eta gastuak deskonpentsauta.

Zer sarrera dituzue? - Soziuen kuotak, hauetatik 7 bat millioi ateratzen dia, rifak eta Udalet-



xian laguntza. Fitxak bajatuta 4 millioi gutxiago gastauko dia, eta lan atipikuak eingo ditzugu dirua ateratzeko. Zero pezetakin hasi biharrian 5 milloiko zorrakin has-ten bazera...

1 Garai eskasa tokatu zaizu.
- Egon dia txarrauk. 1974. urtian minoi bateko kreditua eskatu gendun. Epoka hartan millioi bat oin bost baino gehixao zan.

1 Zer da zailagoa, futbola bankiloan ala bulegoan? - Oso desberdina da. Bankiloan oso nerbio-soa izan naiz, beti botatzen ziaten zelaitxik. Bankiloan badakizu zer daukazu: ekipua preparau eta partidua jokatu. Baina direktibian beti klubian pentsatzen egon bihar zera; ingrataua da direktibako lana. Beti nundik dirua atera pentsatzen. Aurten 15 millioira jeitsi nahi dot pre-supuestua. Gehienez 16 millioi.

1 Futbola kenduko balizute? - Zuzenian Olasora. Elgoibartik 2.1 urtekin urten nintzan eta 33 urterarte egon nintzan jokatzen. Futbolian jarraitzen dot sartuta, eta jubilau arte jarraitzia pentsatzen dot.

• Adina: 49
• Nork irabaziko du Mundiala? Arjentinak edo Brasilek.
• Errealala Athletic? Athletic, baina Errealarekin harreman eta lagun asko daukat

Zorrik
7:00 - 7:30
Errosario, 25 -
GAZTEENTZAKO MODA

1111E, MICAM
Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

- * IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- * MULTIKOPISTAK
- * FOTOKOPIA DORAK
- * PLANOEN BIRREGILEAK
- * ERLOIU INDUSTRIALAK
- * MARRAZKETA MATERIALA
- * INFORMATIKA
- * FAX

Kirella. eta euskara bultzatuko diru

Elgoibarko Udal Kirol Zerbitzua, Deba Beheko eta Garaiko beste 13 Udalekin batera, "Kirola Euskaraz" izeneko programan sartuta dago. Helburua, kirola bera bultzatu eta euskara kirolaren esparruan barneratzea. Asmo hori lortzeko, ikastaroak, bekak eta argitarapenak bultzatu dituzte.

K irola Euskaraz" ikastaroak eskaintzean eta euskarazko argitalpenak laguntzean datza. Ikastaro hauekin herrietako klubei begira, kualifikazioa ematea nahi zaie, kirolean murgilduta baina titulaziorik ez duten horiei. Aurten honako ikastaro hauek eskaini dira: herri kirolen aplikazioa hezkuntza fisikoan, txirrindularitzako eta boleibol ikastaroa, eta irailean atletismo ikastaroa. Azken ikastaro honetarako izen-ematea 8.000 ptakoa izango da eta Mintxetan burutuko da. Irailaren 24an hasiko da eta bost astebukaera iraungo ditu. Ikastaro bukaeran monitorea titulua eskuratuko da.

Saskibaloia ikastaroa

"Kirola Euskaraz" programatik kanpo, eta Saskibaloia Federazioaren eskutik, kirol honi buruzko ikastaroa burutzeko aukera egongo da uztailaren 18tik 30era bitartean Urretxun. Asteleheneetik larunbate-



■ Datorren irailean atletismo monitorea izateko ikastaroa izango da Mintxetan.

ra bitartean izango da eta ordaindu beharrekoa 6.000 pta dira. Datorren denboraldian Elgoibarren saskibaloia taldea osatuko denez, monitorea titulua atera nahi duenak, hortxe dauka aukera aproposa.

Edozein ikastarori buruzko informazioa lortzeko, Kirol Zerbitzura jo, edota 74 44 15 zenbakira deitu.

Liburuaren argitalpenak

"Kirola Euskaraz" programaren beste atala, kirol materialeak euskaraz argitaratzeko laguntzek osatzen dutena da. Iaz futbol entrenamenduari buruzko liburu frantses bat itzultzeko eman zuten beka. Aurten, berriz, "entrenamendu sistemak eta hauen aplikazioa kirol ezberdinetan" izenburuko

liburu bat idazteko emango dute diru-laguntza. Bekadunei 400.000 ptako laguntza eman zaie.

Ekimena, Deba Garaikoa

Deba Behera hedatu aurretik, urtebetez ziharduten elkarlanean Deba Garaiko Euskara eta Kirol Teknikariek. Momentu horretan egitasmoa Deba bailara osora zabaltzea erabaki zuten eta Deba Beheko hainbat Udaletxe programara batu ziren. Gaurregun 14 Udal daude programan sartuta: Elgoibar, Eibar, Ermua, Deba, Mallabia, Sorluze, Bergara, Antzuola, Elgeta, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Oñati eta Leintz-Gatzaga. Udalerri bakoitzak biztanleriaren arabera, zenbateko bat ematen du programa burutu dadin.

MASUMIS
MODAK
Nafarroa enparantza ☎ 74 35 83

*Zatoz!!
beherapenetan
gaude*

Fotero
OKINDEGIK
OPILDEGIII

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

Haurrentzako duathloia eta Karakatera as _erketa antolatu ditu Urgazik

Elgoibarko Urgazi Triathloi Taldeak haurrentzako duathloia antolatuko du aurten lehen aldikoz San Bartolome jaietarako. Lasterketa, herri barruan burutuko litzateke, eta distantziak honako hauek izango liriteke: 1,5 km korrika, 10 bat bizikletan eta beste bat korrika. Urgazik ez du erabaki oraingoz San Bartolome bezperan edota haurren egunean egingo litzatekeen duathloia.

Urteko balantzea eginez, azken aldiak bazkide berri mordoska batek eman du izena Urgazi Taldean. Gaurregun, 20 bazkide ditu eta hauetatik neska bakarra. Dena den, aurten 4 triathleta baino ez dira lasterketetan ibili. Arrazoi honegatik herriko kirolariak duathloietan parte hartzera animatu nahi dituzte, batez ere, Nahaste Borrastean aritu direnak.

Munduko txapelketa

BARRENEko aurreko zenbakian agertu zen bezalaxe, Iriaki Andonegi eta Iñaki Konde Urgaziko kideak, joan den asteburuan Nizan izandako Munduko Txapelketan parte hartu zuten, Euskal Herritik Iau ordezkari baino izan ez zirelarik. Bi elgoibartarrak "C" kategorian aritu ziren, 3.800m igerian, 130km bizikletan eta 30km korrika. Iñaki Kon-



• Nogusientzat ez ezik, haurrentzako duathloia antolatuko du Urgazik.

dek, bestetik, Lanzaroteko ironmana burutu berri du. Iñakik 13 ordu eman zituen lasterketan, "gogorrena maratoia izan zelarik". Honez gain, Hawaiko iron-manean parte hartzeko aukera izan arren, Iñakik ez joatea erabaki zuen.

Karakatera lasterketa

Urgazik eta Morkaiko mendizale elkarteak bat eginda, garai batean Elgoibarren burutzen zen Karakatera lasterketa berreskuratzeko asrnoa dute. Urria aldera izango litzateke froga, eta dagoeneko parte hartu nahi dutenei prestatzen joan daitezen

adierazi nahi diete antolatzaileek. Karakatera ahalik eta denbora gutxien igotzean datza lasterketa, ibi-bidea saltaka egin beharko litzateke elarik. Errekor ofiziala, Morkaikok neurtutakoa, 38'35"takoa da, duela zortzi bat urte Pedro Etxeberria "Mantzillak" eginikoa. Baina ofizialtasunik eduki ez arren antolatzaileek jakin badakite badagoela Plazatik Karakateko buzoira 32 minututan heldu denik. Urgazik eta Morkaikok parte hartzera animatu nahi ditu herritarrak, honela aintzinako ohitura bat berreskuratuz.

KIROL FLASHAK KIROL FLASNAK * KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK



C.D. Elgoibar Elkarteak

presidente berria hautatu zuen joan den asteartean egindako urteroko Asanblada Nagusian. Manolo Esnaola "Muxi" datorren bi urteetarako presidente aukeratu zuten asanbladan parte hartu zuten 50 bat lagunek. Esnaola izan zen kargurako aurkeztu zen hautagai bakarra. Bere asmoen artean, helburu nagusi bat aipatu zuen: zorra kitatu. Elkarteak 6 milioi inguruko zorra dauka eta jokalarien fitxak murriztuz eta bazkideen kuoten bidez, bi urtetan zorra kendu daitekeen ustea du Esnaolak. Aurtengo aurrekontua 15 milioitakoa izango da, iaz baino 9 milioi gutxiago.




Egur Arte Tailerlean urtean zehar egindako lanak ikusgai daude Kultur Etxean. Erakusketa hilaren 10era arte egongo da zabalik. Erakusketa 70 bat kuadrok eta buztinean egindako hainbat lanek osatzen dute. Erabilitako teknikak anitzak dira, oleoa, freskoak, grabatua,... *Egur* Arte Tailerrak urtero egiten du erakusketa, herriko artista ezberdinek egindako lanak erakustea delarik asmo nagusia. Bisita ordutegia: arratsaldeko 7etatik 9etara bitartean astegunetan eta 12etatik 2etara jaiegunetan.

Artelekuk hiru mintegi antolatu ditu udarako

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Turismo Saileko Arteleku erakundeak hiru mintegi ezberdin antolatu ditu aurtengo udarako. Ikastaroak Arte bisualen irakaskuntzari buruzkoa, litografiari buruzkoa eta Mitsuo Miuraren tailerrak izango dira. Izena emateko epea itxita dago lehen ikastarorako baina gainontzeko beste bietan oraindik eman daiteke izenik. Litografia ikastaroan 8 pertsonantzako lekua dago eta Don Herbert irakasleak emango ditu klaseak. Mitsuo Miuraren tailerlean 15 pertsonak har dezakete parte gehienez eta irakaslea Mitsuo bera izango da. Ikastaro biak abuztuan zehar burutuko dira eta izena emateko epea bietan hilaren 20an bukatzen da. Izena emateko, informazioa eskatu Artelekura deituta (45 36 62/45 37 44).

JDSE MARI ARAIUMENDI "KATE

Edari Banatzailea



1115A 1,1¹⁵

it.
eva



GURELESA



SANTA ANA 41.

74

41 - 74 !! 1 32

San Pedroko jaien txanda ieldu da

San Juanekin batera sartzen gara uda garaian, eta honekin bat etortzen dira jaiak. Herrietan ezezik, herri bakoitzeko auzo txikietan ere ospatu ohi da jai mordoska bat, giro eta ambiente aldetik beste haien inbidiarik ez dutenak gainera. Urtero bezala herriko auzoak beraien jaiak ospatzen hasi dira. Batean eta bestean txafliu hotsak entzun dira jaiak ospatzen ari diren adierazgarri gisa. Aitzolako San Juanekin hasi den jai errekak, irailaren amaieran San Migelen ospatuko dituzten jaiekin izango du bukaera. Tartean, Maalako jaiak, San Lorentzoak, San Rokeak, San Antolinak,... eta San Bartolomeak noski, izango dira. Auzorik auzo, nahi duenak izango du non dibertitu. Esanak esan, pasa berriak ditugu Altzolako San Juan jaiak, pasa den asteburuan izan ziren, hain zuzen ere. Eta sartu-sartuak gaude San Pedro jaietan, ekainaren 29n hasi ziren eta aste bukaera honetan dute jarraipena.

Ez dugu ahaztu behar kalean badugula San Pedro izeneko beste auzo bat ere, eta bertakoek datorren astean helduko diote jai giroari, uztailaren 8, 9 eta 10a bitartean. Batean eta bestean ibili da **BARREN** ere eta hara hona horietan jaso ditugun zenbait irudi. Gutxi badira ere, nahikoak neguan lotaratua egon den gorputza esnatu eta festa giroan jartzeko.



Altzolatarrak ikus ditzakegu argazkian, San Juanetako ohiturari jarraiki, pinua moztzen gero, frontoian jartzeko. Garai batean sua egiten omen zuten pinuaren inguruan eta bat baino gehiago, ausardia galanta erakutsiz, pinuaren puntaraino igotzen omen zen, kuadrilakoen apusturen bat medio. San Juanetan badute beste ohitura zahar bat Altzolan: bezperako jai usaina gorputzetik kendu gabe, goizean goiz mendira joan eta erramua moztzen da, etxeko atarian jartzeko. Diotenez, izpiritu txarren eta piztien aurkako erremedio omen da.



San Pedro bailarako jaiek hartu dute Altzolakoen errelebua. San Pedro egunean, ekainaren 29an, Santua bizkarrean daramatela patrioiaren omenezko prozesioa egin zuten auzotarrek urtero bezala. Kanpai hotsek lagunduta, eliza aurrean buelta bat ematen dute, ondoren meza entzuteko. San Pedro egunean bazkaria izan zuten auzotarrek eta jaia arratsaldera arte luzatu omen zen. Dena dela, jaiak ez dira bukatu eta astebukaera guztian zehar, bolo eta ahari jokua, bertso afaria, erromeria, gaupasa, idi demak eta beste ekitaldi mordo bat izango da San Pedron.

Salerosketak

KANPING KARRO BAT
ETA OSAGARRIAK saltzen
ditut. Egoera onean.
v 74 19 39 Mari Sol

GARAJE BAT
ALOKATZEN DA da pista
beltzean bere atearakin
V• 74 16 97

Karabana bat sartzeko
GARAJE EDO LOKAL BAT
ALOKATU nahi dut.
r 74 29 52
Gauze 8-10 bitartean

LOKAL KOMERTZIAL
BAT EDO GARAJE BAT
saltzen da Urasandin.
v 74 21 86

MOTOR bat daukat
SALTZEKO G.A.C. Onix 2.
900 km.
Gauze, 8etatik aurrera.
V• 74 29 32

GARAJE BAT alokatzen da
pista beltzean. Marraduna da.
v 74 21 64

GARAJE BAT alokatzen da
San Roke 5ean. Marraduna.
z• 74 08 05

BROTHER TRIKOTOSA
BAT SALTZEN DUT.
Bigarren eskukoa.
Marrazkiak egiten ditu kolore
askorekin. Prezio merkea.
v 74 18 51

San Roke auzoan GARAJE
BAT alokatzeko daukat.
zr 74 00 67 Martin

SURF tahlata saltzen dut
20.000 ptatan "Esus"
markakoa.
v 74 07 61 Julen
(afal orduetatik aurrera.)

Etxebizitzak

PISU BAT ALOKATZEN
DUT CAMBRILSen.
Uztailaren 2. hamabostaldia
eta ahuztua.
v 19 27 33
Deitu 20,00etatik aurrera.

PISU BAT daukat salgai
Ermuaranhiden.
v 74 27 12

ETXE BAT SALTZEN dugu
Pedro Muguruzan. Egoera
oso onean eta guztiz
amueblatua. Bigarren pisua.
71* 74 08 57

BUNGALOW BAT
ALOKATZEN DUT Santa
Polako hondartzako lehen
ilaran. Ekaina, uztaila, iraila.
a. 74 27 02 Ana

APARTAMENTSU BAT
DAUKAT BENIDORM-EN
alokatzeko moduan. Levanteko
hondartzako lehen
Igerilekua eta aparkalekua.
Labadora eta aire airtotua.
zr 74 16 57 111 32 15

PISU BAT daukat alokatzeko
ALCOCEBER-en
(Castellon). Uztailean.
Er 74 21 86 Maria

Bestelakoak

Eguzkitako BETAURREKO
BATZUK TOPATU ditugu
Santa Ana kalean.
tr 7416 26

Hilak 23 osteguna gizonezko
ERLOJU BAT GALDU nuen
San Pedrotik Hiru Iturrira
bidean.
1 7401 90

Bigarren eskuko
FRIGORIFIKO BAT
BEHAR DUT. Deitu I Oetatik
12etara.
171 7406 64 Nekane

Lana

Edozein TESTU MOETA
ORDENAGAILUZ
PASATZEN da eta
"Curriculum Vitae"ak egiten
dira.
v 74 44 47

BBB eta UBiko FISIKA
ETA MATEMATIKAKO
KLASEAK ematen ditut.
Euskaraz eta erderaz.
77 74 23 OI Jokin

FRANTSES KLASE
INTENTSIBOAK ematen
ditut. Uztailean zehar.
v 74 04 59 Jacqueline.
8etatik aurrera deitu.

Klase partikularrak ematen
ditut. Matematikak, kosteak
eta kontabilitatea orokorrean.
Ekainean eta uztailean.
v 74 21 65 Jabi

Hi ida koak

Algel Garcia Diaz
(ekainak 9) 85 urte
I Jose Inazio Barona Diez
(ekainak 24)
I Asensio Sandoval
Ramos
(ekainak 24) 62 urte
Alain Alberdi Zabala
(ekainak 26) 19 urte
Mariano Loiola Galdos
(ekainak 27) 76 urte

111 Jaiotakoak

/ Elia Monje Gorrotxategi
(ekainak 1)
I Ane Iturbe Balzola
(ekainak 6)
Elena Lariz Azkue
(ekainak 12)
Danel Iñiguez
iruretagoiena
(ekainak 15)
Joanes Etxabe Villasante
(ekainak 16)
David Aranda Cobos
(ekainak 24)

111. Ezkondutakoak

I Jose Maria Etxeberria
Zulaika eta Olga Cengotita
Blanco (ekainak 4)
Joseba Iñaki Etxarri
Lopez de Zubiria eta
Cristina Gonzalez
Muruamendiaraz
(ekainak 18)
I Pedro Jimenez Merino
eta Maria Juliana Aviña
Gonzalo (ekainak 18)
Juan Jose Arevala
Guinaldo eta Emilia
Vazquez Corrales
(ekainak 18)



GARAY
HARATEGIA
URDAITEGIA
San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92



karkizano
San Franziska 12-14, Tel 74 05 49



Arrieta
modak
San Bartolome 18
74 08 49

stVIWA~...91Wi eittra.roY x

TX1R1B0Ga

Taberna

GOSARIAK, PINTXOAK
ETA OTARTEKOAK
Plaza merkatua 23-24

4 OSTIRALA

19,00 HITZALDIA

Gaia: "Armen industria Euskal Herrian.

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Elgoibarko Talde Antimilitarista.

22,30 NATHALIAREN KANTALDIA

"El Rocio" taldearen laguntzaz

✓ Herriko Antzokian

T LARUNBATA

16,00 GARE-REN BILERA

✓ Kultur Etxean.

19,30.22,15 ZINEA

"La casa de los espíritus"

✓ Herriko Antzokian

Sarrera: 300 pta.

22,30 ROCK KONTZERTUA

E.H. Sukarra, Julio Kageta eta Etsaiak taldeak.

✓ Ikastolako Atletismo pistan.

Antolatzailea: Elgoibarko Talde Antimilitarista.

IGANDEA

06,00 ELGOIBAR-GERNIKA TRABESIA

✓ Irteera Morkaikoren lokaletik
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

16,30 ZINEA

"El nirio leon"

✓ Herriko Antzokian

Sarrera: 250 pta.

22,15 ZINEA

"La casa de los espíritus"

✓ Herriko Antzokian

Sarrera: 300 pta.

7 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"La casa de los espíritus"

✓ Herriko Antzokian

Sarrera: 300 pta.

ASTEARTEA

22,15 ZINEA

"La casa de los espíritus"

✓ Herriko Antzokian

Sarrera: 300 pta.

OSTIRALA

22,15 ZINEA

"La señora Doubtfire"

./* Herriko Antzokian

Sarrera: 300 pta.

ZINEA

La casa de los espíritus

Zuzendaria: Bille August
Aktoreak: Meryl Streep, Jeremy Irons, Glenn Close.

Esteban Trueba familiako burua da. 1928an, urrezko meategietan dihardu lanean bi helbururekin: aberastu eta Rosa Del Vallerekin ezkondu. Baina bere desioak obsesio bihurtzen dira Rosa, bapatean, hiltzen denean. Honen ahizpa gazteak, Clarak, dohai bereziak ditu gauzak gertatu aurretik iragartzeko, eta ahizparen heriotzaren ondoren, isiltasunean murgiltzen da. Nagusitzean Esteban ezagutzen du eta berarekin ezkondu. Tres Marias izeneko etxera joango dira bizitzera. Bertan Estebanen arreba Ferula bizi da. Bi emakumeen artean ahizpen arteko harreman sendoa sortuko da.

SART LEDIEDRO

Auzok o jaiak

UZTAILAK 1 OSTIRALA

21:00: Bertso Afaria (Ziarda, Gorrotxategi, Joxe Agirre eta Loidisaletxe bertsolariekin. Gaijartzaile: Meabebasterretxea)
Ondoren, Erromeria
EnrekaIde anaiekin.
Gaueko IZetan, Bolo tiraldia.

UZTAILAK 2 LARUNBATA

17,00: Umeen jolasak.
23,30: Bolo jokuak.
24,00: Gaupasa Imuntzo eta Belokirekin.

UZTAILAK 3 IGANDEA

10,30: Meza.
12,00: Ahari jokua (Pontxera eta Peñaren ahariekin)
Ondoren, esku pilota partidua.
18,00: Idi demak (Artadialde - Artaso Belarreta)
Jarraian, Otar baten zozketa.
Egun guztian Zabaleta eta Iker trikilitariak.

txandak

FARMAZIAK:

2, larunbata: Etxeberria
3 igandea: Etxeberria
4, astelehena: Yudego
5, asteartea: Yudego
6, asteazkena: Yudego
7, osteguna: Yudego
8, ostirala: Yudego

OKINDEG1A:

3, igandea: ELZAGURRE



sake
KOPERATIBAK

INEKO ☎19 93 00-ITZIAR

Udako eskaintza

Ekainaren 10tik Uztailaren 8ra

| | | |
|--|---|--|
|  PAEIONTZIA LEUNDUA 40 Zmko. 580 PTZ. |  KROMATU ALTZAIRUKOZ BARRILA 1.120 PTZ. |  115 PTZ. LORATEGIKO ESKULARRUA |
|  BARBAKOA BOROBILA 42 Zmko. Ø 2.095 PTZ. |  TERMO "HAWAY" 3/4 1.240 PTZ. |  TERMO SAKONTONTZIA 2'5 1.740 PTZ. |
| | |  "CURVER" IZOZKAILUA 25 Lko 1.580 PTZ. |

Badator hondartzako tren!



Oroimena freskatzen dizugu

Ordutegi berriak

Ermua-Eibar-Deba

Galde ezazu zure geltokian

Zure bidean gaude




EUSKOTRENBIDEAK



ELGOIBARKO IRAKASKUNTZA ERTAINAK



LANBIDE ESKOLA ¹¹ 74 44 80



BATXILERGO INSTITUTUA -a 74 02 67

DATORREN IKASTURTERAKO ESKAINTZA

LANBIDE ESKOLA

- REM I
- REM II

:31

• BATXILERGO BERRIAK I

- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- HUMANITATEAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK
- BATXILERGO TEKNOLOGIKOA
- L.H. 2.2. (autamozioa)
- L.H. 2.3. (automozioa)
- B.A.G. 2
- B.T.I. 2
- M II Txapa eta pintura
- M III Enpresen administrazioa eta gestioa

BATXILERGO INSTITUTUA

- BBB (BUP) I
- BBB (BUP) II

• UBI (COU)

A Zientifiko teknologikoa

B - Biosanitarioa

C - Gizarte Zientziak

d - Humanistiko - Zientifikoa

MATRIKULA EPEA ZABALIK

UZTAILAREN 1etik 8ra bitartean

ORDUA: 9.00 - 13,00 ikastetxeko bulegoetan.

BATXILLERGO BERRIETAN MATRIKULATU BEHAR DUTENENTZAT OHARRAK:

- Ikastetxean "Orientabide txostena" eskatu, aukera arretaz egin ahal izateko.
- Uztailaren 6an, goizeko 10etan, Ikasketa Buruak zalantzak argituko ditu aukerarik onena egiten lagunduz. Batxilergo Institutuko aretoan.
- 6, 7 eta Elan matrikula egiteko aukera izango da.